

SAILBURUA
EL CONSEJERO**AGINDUA, HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA,
EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN
ANTOLAMENDU ETA
FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO
LEGEAREN AURREPROIEKTUA
ALDEZ AURRETIK ONARTZEN DUENA** **ORDEN DEL CONSEJERO DE
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y
JUSTICIA, POR LA QUE SE APRUEBA
CON CARÁCTER PREVIO EL
ANTEPROYECTO DE LEY DE
ORGANIZACIÓN Y
FUNCIONAMIENTO EN EL SECTOR
PÚBLICO**

2015ko ekainaren 8ko Aginduaren bidez, Euskal Sektore Publikoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Legearen Aurreproiektua lantzeari eta izapidetzeari ekitea erabaki nuen, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolamendua, horren kontzeptua, printzipio orokorrak eta sektorea osatzen duten entitate guztietarako arauak ezartzeko, baita funtzionamenduaren ardatz nagusiak ere, gure gobernantza-ereduarekin komunstaduraz. Hau da, gobernu-mota hurbilagoa, parte-hartzaileagoa eta eraginkorragoa eta bere helburua gizarte-, ekonomia- eta erakunde-garapen iraunkorra lortzea da, gobernuaren ekintzaren, gizarte zibilaren eta gizarte- zein ekonomia-jardueraren orekan oinarrituta.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoak, 7.1. artikuluan ezartzen duenez, xedapen-proiektu orokorrak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organo berak onartu beharko ditu xedapen-proiektu horiek, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak bideratu aurretik.

Hori dela-eta, egindako lege-aurreproiektua ikusita, eta ekainaren 8ko Aginduarekin bat etorriz, honako

Mediante Orden de 8 de junio de 2015 acordé la iniciación de la elaboración y tramitación del Anteproyecto de Ley de Organización y Funcionamiento en el sector público, para establecer la organización del sector público vasco, su concepto, los principios generales y las reglas del conjunto de entidades que lo conforman, así como los ejes fundamentales de su funcionamiento en concordancia con nuestro modelo de Gobernanza, un Gobierno más cercano, participativo, eficaz y eficiente cuyo propósito es el logro de un desarrollo social, económico e institucional duradero, basado en el equilibrio entre la acción del gobierno, la sociedad civil y la actividad social y económica.

El artículo 7.1 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General establece que una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, estos deberán contar con la aprobación previa del órgano que haya dictado la Orden de iniciación, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan.

Por todo ello, visto el texto del Anteproyecto de Ley elaborado, y de conformidad con la Orden de 8 de junio

hau

anteriormente citada,

XEDATZEN DUT

RESUELVO:

Lehenengoa: Aldez aurreko onarpena ematea Euskal Sektore Publikoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Legearen Aurreproiektuari.

Primero: Aprobar, con carácter previo, el texto del Anteproyecto de Ley de Organización y Funcionamiento en el sector público.

Bigarrena: Lege-aurreproiektua egiteko prozedura jarraitzeko agindua ematea; hala ezarrita dago, batetik, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak 2015ko urtarrilaren 8an emandako Aginduan, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Euskal Sektore Publikoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Legearen Aurreproiektua egiteari eta bideratzeari, eta, bestetik, abenduaren 22ko 8/2003 Legean, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzkoan.

Segundo: Ordenar la continuación del procedimiento de elaboración del Anteproyecto de Ley; de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de 8 de junio de 2015 del Consejero de Administración Pública y Justicia por la que se acuerda la iniciación de la elaboración y tramitación del Anteproyecto de Ley de Organización y Funcionamiento en el sector público, y en la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Vitoria-Gasteiz, 2015ko ekaina
En Vitoria-Gasteiz, a junio de 2015

Josu Iñaki Ercoreca Gervasio
HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA
EL CONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA